



TXINTXARRIAK: LANBIDEA EZIZEN BILAKATUTA

XV. mendean Alegian txintxarriak egiteko lantegi ugari zeuden eta ordutik herritarrek ezizen hau hartu dute. 17

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-03-28

VIURTEA 1.393.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Laister ekingo diete eraberritze lanei, bi edo hiru hilabete iraungo dutela aurreikusi dute. N. GARZIA

ELIZA BERRITUKO DUTE BARRUALDETIK ETA KANPOALDETIK

ARESO Elizaren ezkerreko bobedan zuloa dago; teilatuak du behar handiena, baina aurrealdea, dorrea, kolorea... ere konponduko dituzte 4




JOXEMI SAIZAR

GUILLERMO OLMO ESKULTURGILEA

«Aralarren lasaitasuna
arnasten da; leku egokia
da nire lanerako»



AMEZKETA Neurri handiko eskulturak egiten ditu eta egurra, burnia eta harria erabiltzen ditu 6



bidali opor hauetako argazkiak!



Aisia
**ADUANA
Bainuetxean**
(Orduñan, Bizkaian)
2 pertsonentzat.



Bi pertsonentzako bazkari edo afaria
Berrobiko **Iriarte**
Jatetxean.

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorbidea 5 behea, atzea 20400 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Laburrak**Herri arteko txapelketa antolatuta dute**

KIROLA ● Localia Gipuzkoa telebista kateak antolatuta, herri arteko txapelketa egingo dute, apirilaren 19an hasita. Kultura eta herri kirolak uztartuko dituen txapelketa izango da, eta eskualdeka taldeak lehiatzea da helburua. Taldeak hiru mutil eta hiru neska osatuak egongo dira. Hain zuzen ere, Tolosaldea ordezkatuko duen talde bat behar dute. Interesatuak apirilaren 1erako Tolosako Kirol departamentura (943 697455) edo Kultur Etxera (943 670383) dei dezakete. Txapelketaren finala ekainean izango da; irabazleak garaikurra eta bidaiari bat jasoko du, eta bigarrenak afari bat.

Asuncion klinikan hasi dira aparkalekuko obrek

HIRIGINTZA ● Asuncion ospitaleko aparkalekuan hasi dira obretan. Hauek irauten duten bitartean bertakoentzat eta garraiobide publikoentzat egongo da soilik zabalik. Beraz, garraio publikoa eta igerileku zahararen aparkalekua eta Zumardi Handia eta Txikia erabiltzea gomendatu dute.

Futbol Indoor Txapelketako partida, gaur

KIROLA ● Bi norgehiagoka izango dira gaur ikusgai Usabal kiroldegian. Kantxa nagusian, 20:00etan Futbol Indoor Txapelketako partida izango da, Real eta A Coruña-ren artekoa. Behekoan, berriz, 20:30ean, Laskorain eta Intxurreko nesken arteko areto futbol lehia izango da.

Getarian lehiatuko dira bihar, TAKEkoak

KIROLA ● Tolosaldeko Arraun Klubeko kirolariak Gipuzkoako Batel Ligaxkako beste jardunaldi bat izango dute bihar. 16:00etatik aurrera izango da saioa Getarian.

Amarozko Auzo Elkarteak 6.000 euro inguru bildu ditu nikaraguarrentzat

Gizartea » Merkatu Txikian lagundu duten guztiak eskertu dituzte; 20 emakumerentzat beka ordaindu ahalko dute.

ERREDAKZIOA

Amarozko Auzo elkarteak, Tolosako Udalaren laguntzarekin, martxoaren 11tik 16ra Merkatu Txikia antolatu zuen, eta bertan 7.163 bildu dituzte. Diru hori Nikaraguan heziketa proiektu bat laguntzeko baliatuko dute.

Jose Luis Butron Amarozko Auzo Elkartearen lehendakariak tolosar guztiak eskertu nahi izan ditu, «ekimen honi adierazi dioten babesarengatik. Izan ere, bildu ahal izan dugun diruarekin Nikaraguako 20 emakumerentzat heziketa beka ordainduko ditugu, eta emakume hauek albaritazko goi mailako ikasketako kurtsua egingo dute».

Itxaropena ez galtzea

Hala, hainbeste tolosarren laguntzarik gabe ez zela posible izango nikaraguarrei laguntzea azaldu dute elkartetik. «Era berean, espero dugu solidaritate ekintza txiki honek Nikaraguako emakume hauen itxaropena ez galtzeko balio ahal izatea, eta senti dezatela ez daudela bakarrik dauden egoeraz ateratzeko egiten ari diren langogorren, baita baitaite Tolosa izena duen munduko txoko honetatik beraiekin gogoratzen garela».

Jose Luis Butronek Nikaraguako hezkuntza proiektuari babesa adierazi dieten guztiak eskertu nahi izan ditu, «berezik lehenengoz euren ekarpena egin duten dendei, komunikabideei eta Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailari».



Martxoaren 11tik 16ra egon zen zabalik Kultur Etxean Merkatu Txikia. N. LATABURU

Emakumeen egoera aldatuz

Nikaraguako zonalderik txiroenean, Malpaisillon, Xochilt Acaltizeneko Emakume Antolatuen Zentroa garatzen eta bultzatzen ari den proiektua da Amarozko Auzo Elkarteak diruz lagundu nahi duena. Aurtengoarekin zazpigarren urtea da Nikaraguako heziketa proiektua babesten ari direla.

Proiektu hori urteko urtera ari da bere fruituak ematen. Hala, emakume horiek tolosarren laguntza eta elkartasunari esker ikasketa prozesu baten barruan daude sartuta, batzuk alfabetatzen, beste batzuk lehen mailako ikasketak egiten eta besteak bigarren mailakoak, eta aurtengo Albaitaritzako Goi Mailako Teknikari ikasketak egingo dituzte.

Zentro horretako garapen pro-



Nikaraguan, emakumeak eskolak jasotzen. HITZA

zesuan sartuta dauden emakume hauetako asko, proiektu honi esker, aldatu egin dira egoeraz: lehen, lurrik gabeko nekazaritza jorنالariak ziren eta beraien soldata uzta sasoiari lotuta zeukatzen;


orain, aldiz, ekoizleak dira, produktu desberdinak ekoizten dituzte, eta beraien produktuak lursailen jabe ere bihurtu dira; are gehiago, abeltzaintzan ere sartu dira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta **Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra



BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)

Aizkardi mendi elkartean 40. ibilaldi neurtua izango da etzi

ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendizale Elkartean 40. aldiz ibilaldi neurtua izango da etzi. Bi ibilbide ezberdin izango dira, bata 43 kilometrotara, eta bestea 23,5ekoa. Dagoeneko 900 lagun inguruk eman dute izena, baina oraindik ere parte hartzeko aukera dago. Hau egunean bertan egin daiteke, irteera ordua baino lehen.

Aurtengoan, antolatzaileek dei berezia egin dute, ordu aldaketa dela eta argi ibiltzeko. Ibilaldi luzea egin behar dutenak 07:00etan abiatuko dira Villabonako elkartean eigoitza aurretik, eta besteak, 18:00etan. Izen-ematea doakoa da, eta parte-hartzaile bakoitzak, norberaren jan-edanak eraman beharko ditu. Martxa-txartela jasotzeko, mendizaleek izen-emate zenbakia beharko dute.

Ur isuriak kentzeko lanak abian

Tolosa » Eusko Jaurlaritzako ingurumen sailak 16 milioi euro inbertituko ditu ibaiko isuriak ezabatzeko obrak.

ERREDAKZIOA

Urak, ur agendiak, Tolosako hiri-guneko ur zikinak jasoko dituen kolektore sarea eraikitzeko lanak hasi ditu. Honi esker, etorkizuneko Adunan eraikiko den araztegiaren ahal izango dira horiek. Ura Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren baitan aurkitzen da eta azken honek, 16 milioi euroko kostua izango duten eta bi urtez luzatuko diren lanak esleitu zituen. Oria erdialdeko saneamendu sisteman aurrera eramango den obrarik garantzitsua da hau.

Esther Larrañagak zuzentzen duen saila udal teknikariek inbentariatu dago obra honek izango dituen eraginak murrizteko. Izan

ere, 1.200 metrotan zehar kolektorea San Frantzisko ko kalean azpitik igaroko da. Tunelen eraikuntza erabili ohi den «sator» bat izango da tutueria sartu eta lurra zulatuko duena. Horretarako beharrezkoa izango da makina sartu ahal izateko hobiak bertatik ateratzen den materiala bideratzea. San Frantzisko kalean bi hobi daude aurreikusita, Trianguloan bat eta beste bat, Rondillan.

Tolosako ur zikin guztiak bilduko dituen kolektoreak 2,5 kilometroko luzera izango du. Benta Haunditik hasi eta hirigunera iritsiko da San Frantzisko eta Rondilla kaleen azpitik igaroz eta berriz ibaira aterako da Arramele zubiraino iritsiz. Proiektuak 1,5 kilometroko luzerako adar baten eraikuntza ere jasotzen du. Honek gaur egun Zelai ibaira iristen diren ur zikinak bilduko ditu Ibarren eta kolektore nagusiarekin lotuko ditu, San Frantzisko kale azpian.

Sistema honentzat beharrezko da Amaroz, Alameda Rekalde, Zu-

mardi Handia, Triangulo plaza eta Nafarroa Etorbidean gainezkabi-deak eraikitzea.

Lanak bi urte iraun dezaketela aurreikusten bada ere, obra zuzentzen duten Ur Agendiako teknikari eta Udaleko teknikarien arteko koordinazioak kaleak ahalik eta denbora laburren erabiltzeko daude, eta posible den tokietan, obren joana eta ibilgailuen trafikoa bateragarri egin dadin posible egingo du.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak dagoeneko aginatu ditu kolektorearen Legorreta-Alegia eta Alegia-Benta Haundi arteko zatia. Epe laburrean, Arramele zubia eta Irura arteko egingo du. Horretaz gain, berriki, Araxeseko arroko saneamendua burutu du. Kolektibo guztiak Adunan egingo den araztegiaren eraman ditzuten ur zikinak. Araztegiaren egikaritzea Foru Aldundiari dagokio Eusko Jaurlaritzarekin batera hartutako akordio batzuen arabera.

Opor begiekin



» Kale-kantoitik

Joxemi Saizar

Egunerokotasunaren makinaria gelditzen denean, atsedenean garaitzen zaigun, aspalditik desiatutako eta planeatutako opor egunak iristen zaizkigun, kanpora, ohiko bizilekutik urrutirajotzen dugun askotan, leku, jende, denborapasa eta aktibitate berrien bila. Egun libre horiek eguneroko kale eta plazetan pasatzea alferririk gatzatzea, behar bezala ez aprobetxatzea, iruditzen zaigu, nolabait esanda. Eta ez da hala, edo ez luze hala izan behar behintzat. Badakizue, urrutiko intxaurrak hamalau...

Opor egunetako eszenatokia betikoa, egunerokoa, izan arren, aktibitatea aldatuta erabat aldatzen da paisajea. Argi dago. Ez da berdin derrigorrezko lanean aritzea edo gustuko beste zereginetan aritzea. Baina, horretaz gain, herrian bertan egun desberdinak pasatzeko ariketa proposatu nahi dizuet gaurkoan: ohiko lekuak opor begiekin begiratzea.

750. urtemugan jarritako begiratokiak hor daude, ia inork kasorik egiten ez badie ere. Eta beste begiratoki berri batzuk proposatzera ausartzen naiz. Triangulo plazako aulki bat, adibidez. Normalean bertan esertzen ez denak oso desberdin ikusiko du plaza opor egun batean. Edo plaza Berria. Asko hobetu da. Ez da txikitik kalera jaisten ginen garaiko Bronx beldurgarri hura. Kafetegi edo gozotegi bateko erakusleihoa ere ez da begiratoki txarra, kafe eta egunkari baten konplizitatearekin. Edo Alde Zaharreko kalean artean ditugun pasadizo txiki horiek. Montestu, Urkizu edo Izaskunera igotzea nahikoa da herriaren ikuspegi erabat desberdina izateko. Nola ikusiko du Santa Klarako bere leihotik klausura moja batek Orian arrauneari den neskatoka? Eta arraunlariak moja? Kristalaren kolorean dago erantzuna.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzaileak.** Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. Telefono zenbakia: 943 11 98 74 eta 635 72 10 02. Deitu 20:00etatik aurrera (Maite).

Elkarretaratzeetara deitu du gaur iluntzerako Etxeratak

Politika » Urteko lehen bi hilabeteetan «hainbat preso kartzelaz aldatu eta etxetik urrunditu dituzte»; hiru eskualdekoak dira.

ERREDAKZIOA

Ohikoa den bezala, gaur, hilabetezko azken ostirala izanda, Etxeratak deituta elkarretaratzeak egingo dira hainbat herritan. Euskal errepresaliatuen senitartekoei 2008. urte hasieraren balantzea egin dute eta adierazi dute, «urtarrila eta otsailean euskal preso ugari espetxez aldatu» dituztela. Adibidez, bederatzia, «Euskal Herrian kokatutako kartzeletatik urrunditu egin dituzte».

Frantzia ere hainbat kartzela aldaketa burutu dituzte. Kartzela aldaketa horien harira, minbizia duen Jose Domingo Aizpurua beste euskal presorik ez dagoen Perpignaneko kartzelara eraman dutela nabarmendu nahi izan dute Etxeratekoak.

Etxeratak salatu dute ere, «kartzela batetik bestera aldatzerakoan presoek bizi dituzten baldintza kaxkarrak, ordu luzeetako bidaie-tan, eskuburdinak atze aldean lotuta, metalezko kaiola ezin txiki-gotan sartuta edukitzen dituzte». Halaber, beraien esanetan, «kar-

» AZKEN OSTIRALA

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketza.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Leitza.** 20:00etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Zizurkil.** 20:00etan.

tzela berrira iritsi artean telefono deirik egiten uzten ez dietelako, egun luzeetan, nahiz, aste osoan edo gehiagoz, senideen berririk izan gabe egon behar izaten dute».

Eskualdekoen aldaketak

Espetxez aldatu dituzten presoan artean daude Mikel Egibar eta Jose Mari Olarra billabonatarak eta Ismael Fahkri tolosarra. Lehendabizikoa Alcalá Mecon zegoen lehen (Euskal Herriatik 500 kilometrotara) eta orain, Algecirasera (1.235 kilometrotara) eraman dute. Bigarrena berriz, Navalcarneron zegoen, eta Granadara eraman dute, 400 kilometro urrunduz. Azkenik, Fahkri, Martutene-tik aterata eta Burgosera eraman dute.



Umama II aurkeztuko du Tolosako Hodeiertz abesbatzak. HITZA

Hodeiertz abesbatza Ejeako lehiaketan da

Tolosa » Umama II aurkeztuko dute Espainiako abesbatza lehiaketa honetan; beraien emanaldia gaur izango da.

ERREDAKZIOA

Hodeiertz abesbatzak, korurako musika eta jazzaz uztaizten dituen Umama II eskainiko du gaur Ejea de los Caballeros (Zaragoza, Espainia) hiriko abesbatza lehiaketaren inaugurazio ekitaldian. Ekitaldia 20:30ean hasiko da, eta Teat-ro de la Villa antzokian izango da.

Enrique Azurzak zuzentzen duen Tolosako abesbatzak Umama 2 bere ikusizumarekin emango dio hasiera lehiaketari. Bertan, duela gutxi aurkeztutako CDko abestiak eskenaratu dituzte.

Hodeiertz abesbatzaz gain, Juantxo Zeberio piano jolea eta proiektuaren musika zuzendaria bildu dituen. Bertan parte hartu dute ere, Mikel Andueza (kontrabaxua), Mikel Andueza (saxoa) eta Hasier Oleaga (perkusioa) musikariek.

Tolosako abesbatzak aurretik bere XXV. urteurrenaren betetzen du, eta Umama 2 diskoa Ejea de los Caballosen aurkeztea prestatutako ospaketa ekitaldian artean dago.

Ejeako Abesbatza Lehiaketak Espainiar estatuan ospe handiarenakoa da, eta aurretik Andaluziatik, Kanarietatik, Kataluniatik eta Euskal Herriatik etorritako 15 abesbatzetz hartuko dute parte. Hodeiertz irabazle izan da lehiaketa honetan 1987an, 1989an eta 2002an.

NAIARA GARZIA

Urteak dira Aresoko elizak konponketak behar dituela, ezker aldeko kupula da premiarik handiena duena, baina baita teilatua ere. «Ezkerreko aldeko kupula zulatu egin zen», dio Patxi Izko apaizak, «eta ondorioz gurutzearen ezkerreko besoa zulatu egin zen». Hori dela eta, eta ura sar ez dadin, herriko langileek tarteka teilak moldatu egiten dituzte, bestela zerua bistan egonon bailitzateke.

Izok azaldu duenez, apirilaren erdi aldean edo amaieran hasiko dira konponketa lanak. «Apezpikutegitik eman dute baimena baina orain enpresa eraikitzailearen zain gaude. Aresoko eliza herriko puntan dago eta nola ikaragarriko haizea dabilen beti beldurrez egoten gara, ea teilak mugituko diren edo ez. Eta orain, gainera, elurtearekin... Arriskurik ez dago, baina gauza da lehenbailehen konpondu beharra dela».

Elizak konponketa sakona eta orokorra eskatzen zuen, eta teiltatu osoa berritu behar denez, eliza ongi konpontzeko aurrekontu bat eskatu dute. «Gure intentzioa teiltatu ongi konpontzeaz gain elizakantpotik eta barrutik konpontzea da. Elizak duela urteak eskatzen zuen berrikuntza hori».

Historia pixka bat

Patxi Izko apaizak elizaren historia kontatu du. «Berez orain daukagun eliza frantsesen sutearen ondoren egina da. Sutea 1794an izan zen eta eliza 8-10 urte beranduxeagokoa izan da». Erre zen eliza gotikoa zen eta frantsesek erre ondoren eraikitakoak nabe bat dauka. «Daukan formalatindarra da, hemengo estiloa da hori, gero 2 zati dauka, eta erdian gurutzadura bat. Horrela deitzen zaio



Aresoko elizako bobedan dagoen zuloa hagitz garbi ikus daiteke, baita teilatua ere, eta teilak mugituz gero, zerua. N. G.

Areson astero elizara joaten direnek elizatik zerua inoiz baino garbiago eta gertuago ikus dezakete, ezkerreko bobedan zulo bat baitago. Konpondu bitartean, teilak tarteka moldatzen dituzte, baina obrak segituan hasiko dira.

Zerutik gertuago

gurutze forma egiten duen erdiko zona horri eta gero 2 beso dauka, ezker eskuin eta bukaeran, kabezera. Horrek pentagono-forma dauka». Izkoren azalpenen arabera, forma hori izatea «ez da oso ohizakoa. Hori ziurrenik lehengo eliza-

ren hondakinen batzuen gainean egina izanzen delako da, normalena zuzena izatea baita, Leitzakoa bezala».

Sute horrek, ordea, ez zuen dena suntsitu, ordungo 2 santu mantentzen dira: Alexandriako Santa Katalina eta San Migel. «Obra egin behar duten honetan informebategina dago aldareak ere garbitzeko, eta horren barruan sartuta dago aldare guztien zaharberritzea». 7 dira Aresoko elizak dituen aldareak. «Aldareak ere garai horretakoak dira. 2 ekleptikoak dira, beste bat inperio estilokoa, aldare nagusiari ere horrela deitzen diote, gero beste bat neogotikoa da eta gero sakristian daukana da kajoneria delakoa, XVII. mendekoa. Sakristian barruan dago».

Bataiarria gordeta dago, baina pentsatzen da aurreko elizakoa zela, eguzki forma baitauka. «Erdia bakarrik ikusten da orain, dena obraren esperoan dago, baina badakigu ziurrenik lehenagoko elizakoa zela, ikusten den harri zati horretan dagoen eguzki formarengatik».

Dorreari dagokionez mende hasierakoa da, 1908 ingurukoa, eta apaizaren arabera herriko batek jari zuen dirua hura egiteko, Juanito Nazabalek, hain zuzen ere. «Ordurarte teiltatuaren pareraino iristen zen dorre estiloko egitura bat zeukan, baina ez zen teiltatutik gora ateratzen, hau da, elizaren teiltatuaren pareraino iristen zen. Horrek egin zuten izan zen, dorre itxura hartzeko, beste zati bat altxatu».

Konponketa lanak

Eliza konpontzeko orduan beharrik handiena teiltatua zen arren, dena berrituko dute: aurrealdeak pikatu eta berrituko dute, dorreari bere harriaren kolore orijinala ateranahi diote, orain zikina baitauka. Barruan eginen dituzten konponketei dagokionez, aldare guztiak garbituko dituzte, pintatu, eta argi berriak jarriko dituzte. «Aurrekontuarekin iristen bazaigu lehenagolei zaharrak kendu eta bidierara batzuk jarri nahi ditugu. Iruñeko errestaurazio tailer batekoek eginen dute, baina azken batean hau ez da beharrezkoa, gutizia bat da, estetika kontua». Orain enpresaren zain daude. «Guk apirilaren erdialdean edo bukaera aldera etorriko direla espero dugu. Behin obrarekin hasiz gero 2 hilabete edo 3 erraz joan dira».

Elizaren jabetza

Aresoko eliza, Nafarroako beste hainbat bezalaxe, ez da Aresokoa, Nafarroako Artzapezpikutzarena baizik, baita apeztekoa ere. Beharbada horregatik, udaletxean oraindik ez dute proiektuaren agiririk jaso. «Nik dakidala aspaldidantik elizetxea behintzat elizaren izenean dago, urte mordo bat badira elizetxeko terreno batzuk elizak saldu egin zituela», dio Mikel Baribar alkateak. «Nik obra horri buruz oso gutxi dakit, berria iritsi zait, baina agiririk ez».



Aldare honetako santua sakristian sartu dute minik jaso ez dezan. N. GARZIA



hitza

k 5 urte

hh **JAIALDIA** hh

Apirilak 5 • Larunbata

17:00:
Tolosako Beotibarren
Xurdinen
kontzertua.
Sarrerak:
harpidedunentzat 3 euro,
besteentzat 5 euro.



18:00:
Mus Txapelketa azkarra
Tolosako Oargi Elkartearen, Irabazleentzat bazkaria edo afora Tolosako Isastegi sagardotegian.
Parte hartzeko, 17:30ean Oargin bertan izena eman beharko da eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

21:00:
Bertso afora
Tolosako Oargi Elkartearen,
Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu
eta Diego Riaño bertsoarietkin.

Txartelak salgai Zizurkilgo Aurrean, Tolosako Raku eta Denak eta Leitzako Torrea tabernetan. Harpidedunentzat 20 euro, besteentzat 25 euro.

Afalostean poteo herrikoia, trikitixaz lagundurik.



Arau berriztatzaileak, gai nagusia

ALBIZTUR ■ Markel Olano Ahalduen Nagusia eta Rafa Uribarren Foru Al-
dundiko Landa Ingurumen Garapeneko diputatua izan ziren atzo Albiz-
turren. Eguraldia zela-eta herri inguruan buelta txiki bat egin zuten lehen-
dabizi. Bertan, balio historiko handia duten baserriak eta eraikinak eraku-

tsi zizkieten. Ondoren, bilera egin zuten, bertan landutako gai nagusia
arau berriztatzaileena izan zen, horren gaineko proposamenak azaldu zi-
tuztelarik han zeuden zinegotziek. Diru iturri posibleez ere aritu ziren, au-
kera onenak eta egokiak aztertzen. **NEREA URIBIZU**

L Laburrak

Apirilaren 2an etxebizitza tasatuen zozketa izango da

ORENDAIN ■ Datorren asteazkene-
an, apirilak 2, Orendaingo udale-
txean bertako etxebizitza tasatue-
tan izena eman dutenen artean
zozketa egingo dute. Bertan nota-
ria izango da eta puntuazioan
berdinketa dutenen artean eraba-
kiko da zeini egokitu zaion etxebi-
zitzita. 19:00etan izango da: aldi be-
rean, notarioak etxebizitza haue-
tan izena ernateko beharrezkoak
ziren oinarriak azalduko ditu.

GRAVN Beotibarren bihar, Arabaren kontra

PILOTA ■ Bihar, Tolosako Beotibar
pilotalekuan GRAVN Txapelketan
gipuzkoarrak arabarren aurka ari-
ko dira. 16:30etik aurrera Tolosal-
deko pilotariak ikusteko aukera
izango da: 22 urte azpikoetan Au-
rrera-Saiaz eskolako Koldo Gala-
rraga, eta nagusien mailan, Zazpi-
Itturriko Elurbe-Irureta. Zazpi-Ittu-
rri Zizurren izan zen final batzuk
jokatzen eta Jakak eskuratu zuen
txapela: Ikaztegieta Larreak Al-
tuna garaitu zuen (amezketarra).
Bestalde, Herri Arteko Txapelketa
apirilaren hasiko da, eta eskualdeko
askok hartuko dute parte.

Olaberriak Espainiako marka berria ezarri du

Ikaztegieta ■ Jazarpen
proban lortu zuen atzo,
Manchesterreko Munduko
Pista Txapelketan, 3
minutu eta 41 segundotan.

48,745 kilometro orduko abia-
duran egin zuen. Olaberriaren hel-
burua Espainiako marka hobetzea
zen eta lortu egin du, aurrekoa se-
gundo erdi gehiagoan egin bai-
tzuen. «Pozik» dago lortutakoare-
kin, baina halere, «hobe egin zeka-
keela» adierazi zuen.

N. URIBIZU

Leire Olaberriak Munduko Pista
Txapelketan 15. egin zuen atzo ja-
zarpen proban eta honela Espainia
mailako marka hobetu egin zuen.

Dena den, biharko puntuazioko
proba da garrantzitsua, bertan era-
bakiko baita Olinpiar Jokoetara jo-
ango den ala ez. Orain, 17. postuan
dago, eta 20 joango dira.

Emeterio Sorazu omenduko dute etzi

Berastegi ■ 60.
hamarkadan izan zen
herrian eta orduko
gazteek gogoratzen dute
bereziki apaiz hau.

hamarkadan egon zen Berastegin
eta oroitzapen bereziak ditugu». Bereziki, garai hartan gazte edo
gaztetxo zirenak dira gogoan du-
tenak.

Igandean, berak ospatuko du
Eukaristia Berastegiko parrokian
eta ondoren Gaztañondo jubila-
tuen elkartearen bazkaria egingo
dute.

Ibarrako erretorea dagauregun,
eta bertan ere omenaldi bat egin
zioten joan den azaroan.

ERREDAKZIOA

Igande honetan, etzi, hain zuzen,
Emeterio Sorazu apaizari esker
omezko omenalditxo bat eskainiko
diote Berastegin. «Emeterio, 60.

Ziklo Indoor Maratoirako prest

Ibarra ■ Aurten bigarren
urtea da. Belabietan izango
da apirilaren 12an, eta
izena apirilaren 10a baino
lehen eman behar da.

en artean, Spinningeko bizikleta
bat zozketatuko da.

Komenigarria da kiroldegira 30
minutu lehenago iristea eta trans-
ferentziaren agiria edukitzea, az-

ken orduko arazoak ekiditzeko.
Eskuoihala ematea izerdirako eta
garbitzeko.

Partaideentzako edaria eta jana-
ria egongo da.

ERREDAKZIOA

Apirilaren 12an Ibarra, II. Ziklo
indoor maratokia izango da. Lehe-
nengo saioan, 16:00etan Olatz Al-
dasoro, Joxean Alberdi eta Asier
Alonso izango dira, ordu eta erdiz
pedalen gainean. Bigarrenean, ber-
ritz, Fabio Scioli, Esperanza Fuer-
tes eta Xabier Aranalde.

Honetan parte hartzeko izena
aurretik eman behar da, eta bidea
honakoa da: Ibarako Belabieta ki-
roldegian, edo telefonoz, 943 67 15
44, astelehenetik ostiralera, goi-
zez. 10 euro ordaindu behar da.

Epea apirilaren 10era arte

Lekuen erreserbarako, izena, abi-
zenak eta telefonoa eman behar
dira eta partaideek 16 urte baino
gehiagoak izan beharko dute.

Lekuen baieztapenerako, diru
sarreraren izena eman eta hiru
eguneraghienez egin beharko da,
agiria kiroldegiko bulegoetan aur-
keztuz edo fax bat bidaliz 943 67 15
44 telefono zenbakira. Apirilaren
10era arte dago epea. Diru sarrera
kutzako 2101 0043 11 0010622124
zenbakian egin behar da. Partaide-



Kulturunea

Koldo Mitxelena Kulturunea
Lindaketa kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK



Ganbaran
"KULPEZAREN ARRASTOAK"
GONZALO SANCHEZ/GALERIA 16
Ostiraren 20tik apirilaren 3era



Erakustaretoan
"JEDAR GORRIA"
MANU MUMIATZ GANDIKO ETXEA
Martxoaren 6tik maiatzaren 31era

ORDUTEGIA
azkaratik larunbatera:
10:30-14:00 / 16:00-20:30
astelehen, igande eta jaiegunetan 10:30
bitartean gidatua: leku@komark.com
Tel. 943 112 754 / 667 346 025

E Elkarrizketa

GUILLERMO OLMO » Eskulturgilea

«Inspirazioa hemen saltzen dute, Amezketan»

Artea » Neurri handiko eskulturak egiten ditu Guillermo Olmo, gehiago gustatzen zaizkiolako; egurra, harria eta burnia erabiltzen ditu.

JOXEMI SAIZAR

Sarrían (Lugo, Galiza) jaioa 1960ean, txikitán Arboledara (Bizkaia) etorri bizitzera eta azken urte hauetan Amezketan ari da lanean Guillermo Olmo eskulturgilea. Orbegozo fundazioaren laguntzarekin bere lanak Moskun, Parisen eta Bilboko aireportuan ikusi ahal izan dira, besteak beste. Amezketan ere izan dira ikusgai, noski. Orain eskultura lorategi bat egiten ari da Arboledan beste artista batzuekin batera.

Nola aukeratu zenuen Amezketan?

Izana nintzen eta harreman pixka bat banuen, pilotaren bidez Arboledarekin elkartruketa egin zutelako.

Zer eman dizu Aralarrek?

Lasaitasuna arnasten da hemen. Nire eskultura ez da urbanoa, herriak izan dituen balore eta forma estetikoengatik markatua dago. Hemen kontserbatzen dira, erakuntzetan eta bizimoduan, horregatik leku egokia da nire lanerako.

Autodidakta al zara?

Bai, inoiz ez tailer batera edo Arte Ederrak ikastera joan.

Zergatik?

Bakoitzak bere bidea markatu behar zuela uste genuen, asko balorazten zen autodidakta izatea, eragirik ez izatea, baina gero konturatu zenez bestearen eragina baduzula.

Pinturarekin hasi zinen. Nola aldatu zinen eskulturara?

Sormenean beti marrazketa eta margoketarekin hasten zara, eskura duzuna eskolan. Gero nerabezaroan artisaun munduan sartu nintzen, galtzen ari zirenen lanbideak ikutu nituen eta oinarri ona da sormen artistikorako. Argizaiolak, kutxak, taila pixka bat egin nuen. Oinarri tekniko onarekin edozein gauzatar irits zaitzake.

Noiz aldatu zinen?

Soldaduskaren ondoren. Orduan jendea ez zegoen prestatuta horrelakoak jasotzeko.

Pintura utzita al daukazu?

Egiten dudana eskultura motak asko nekatzten du eta pintatzeko debora eta gogorik ez dizu uzten.

Lehentasuna orain eskulturak dauka. Batzuetan erakusketaren baterako paretak bete nahi dituzu eta egiten duzu.

Zein material erabiltzen duzu?

Harria, egurra eta burnia.

Gustukoean zein duzu?

Hiruekin eroso nago. Harriarekin asko nekatzten zara: hautsa irensten, erreminta berdina, pisua. Eskertzen duzu materiala aldatzea. Burnia gustatzen zait mugatuta ez zaudelako, diseinatutako guztia lor dezakezulako. Egurraren edo harriaren edertasuna edo testura ez du. Egurrarekin berriz mugatuta zaudere neurriengatik. Harriaren beste arazoa pisua da, mugitzeko eta lan egiteko tresna bereziak behar dituzu.

Erraza al da lortzea?

Oso zaila da zuhaitz handiak lortzea. Harria lortzeko ez dago arazorik. Arazoagarraioa da. Hareharia eta kareharia erabiltzen dit, hemengo harriak. Oso garestiak dira egurra eta harria.

Zein da pieza baten prozesua?

Espperimentuak gaseosarekin egin behar dira. Enbor handi batekin ezin duzu arriskatu, gaizki ateratzen bada ez duelako erremedioarik, zirriborroa landu behar da, marraztuta eta maketan, aurki ditzakezun arazoak aurrikusteko.

Zergatik erabiltzen dituzu formato handiak?

Eskua joaten zait. Izaera monumental lortu nahi baduzu, nahiz eta neurri txikian egin, neurri handira eraman badezakezu hobeto. Azkenean gehiago gustatzen zait.


Non saltzen dute inspirazioa?

Burnia gustatzen zait mugatuta ez zaudelako, diseinatutako guztia lor dezakezulako

Niretzat hemen, Amezketan. Gustura zauden toki batean.

Eta besteen lanak eragina du?

Txillidak, Oteizak edo Mendiburu mundu osoan eragina dute eta nola ez hemen, bere herrian? Beraiengandik jan eta edan dugu. Hala ere inork egiten ez dituen



JOXEMI SAIZAR

» DI-DA BATEAN

Minimal. Oinarria.

Formak. Kapritxosoak dira, naturakoak errepikatzen ditut.

Hutsunea. Bilaketa.

Bolumena. Bilgarria.

Geometria. Erlazioa.

Testura. Piezan uzten duzun azken eta ikusleak jasotzen duen lehena.

Komunikazioa. Ikusleak jasotzen duenean osatzen da zure lan hori.

Mugimendua. Bizitza islatu behar du piezak, beraz mugimendua sartu behar diozu.

Deskubritu. Pieza barruan ezer ez dagoela uste duzu eta altxo bar aurki dezakezu.

gauzak egiten saiatzen zara, inor ez doan bideak bilatzen.

Eta ateratzen ez denean?

Nahiko gustura bukatzen dut, ez beti erabat. Beti zalantza duzu bukatuta dagoen edo gehiago lan dezakezune, eta agian pasa egiten zara.

Erakusketetara joaten al zara?

Saiatzen naiz, baina eskulturako

hainbeste ez dago. Pinturakoak asko.

Tolosako eskultura proiektua zer iruditzen zaizu?

Oso ideia ona iruditzen zait. Batzuk beste batzuk baino gehiago gustatzen zaizkit.

Txillida ala Oteiza?

Ni Txillidazalea naiz, ezin da esan gaizki ikusita dagoelakoa. Oteiza baloratu dute gehiago herrian.

Txillida ez al da ofizialagoa?

Bai, boterean asko baloratu dute. Oteiza ez zelako ezkondu boterearekin.

Hezkuntzan aritzea probatu dut, baina ikasleek sormena zurrupatu egiten dizute

Ez nago ados. Karreraren amaieran inor baino gehiago zarela uste duzu. Puntu beltza da.

Zer iruditzen zaizu Tindayako proiektua?

Ez nago ados. Karreraren amaieran inor baino gehiago zarela uste duzu. Puntu beltza da.

Jateko ematen al du eskulturak?

Bai, eta kurioso da. Adinarekin zure inguruko jendeak erosteko

aukera handiagoa du. 25 urterekin zailagoa da hori.

Baina beste gauzetan lanean aritu behar izan duzu.

Eraikuntzan, dekorazioan, artisauntzan... Buruhandiak, jaietarako maskotak, argizaiolak egin behar izan ditut. Eraikuntza kooperatiba antzeko batean aritu nintzen. Orain honetan zentratuta badaramatzat urte batzuk. Jende gutxi dago eskulturaz bizi dena. Batzuk hezkuntzan lan egin eta gero aritzen dira.

Zuk ez al duzu probatu?

Bai, eskoletan, kultur etxeetan, tailerretan... baina ikasleek sormena zurrupatu egiten dizute.

Eta etxean jarraipenik ba al duzu.

Bai, semea. Diseinu grafikoa ari da ikasten.

Artisten bertsio aktualizatua, beraz.

Bai, bertsio urbanoagoa da. Denbora aldatu da eta espazio materiala ere bai, beraien globalizazioa da, gazteek mundu osoko abangoardia guztietatik jasotzen dute eragina. Eta modaren eragina handia dute.

NEREA URBIZU

Txintxarriak, eltxoak, eu-
liak, zartagiak... Komune-
an zer duten ez genuke ja-
kingo, ez balitz, Alegialdean herri
ezberdinetako herritarrei deitze-
ko hitzak direla. Askotan, anekdo-
ta hutsal batengatik herri baten
izaera, edo, estereotipo bat sortu-
ezarri izan da; ospe ona edo txarra;
animalia atsegina edo basati xama-
rra... Ia guztiak zahar xamarrak
dira, eta euskaldunok dugun tradi-
zioak eta ohiturak gordetzeko grin
horri eutsiz, hala irauin dute.

Alegriatik Alegiara

Dirudienez, Alegia izenaz baieztu
daitekeena zera da, Udalak berak
ematen dituen datuei erreparatu:
«Hitz hau jatorriz gaztelaniako to-
ponimo bat ez zela eta, beraz, gaz-
telaniara egokitu den euskal hitza
dela Alegria». Lehenago Alegria de
Oria deitzen zen, baina 1980ko bil-
kura batean Alegia jartzea erabaki
zuten. Bai euskaraz eta baita erdaz-
eraz ere, berdin idazten eta esaten
da.

Txintxarriak dira alegiarrak.
Honek badu bere historia: goitizen
hau txintxarriekin lotzen da. Ale-
gian oso arrunta zen zintzarria, eta
txintxarriak egitea. Artisautza hau
aspaldi galdu bazen ere, ezizena
mantendu egin dute.

**Norberto Etxebarrena, azken
zintzargilea**

XV. mendean Urzuriagako lante-
gia izan zen garrantzizkoena, bai-
na ez bakarra. Eta ondorengo
mendeetan ixten joan ziren hango
olak, baina XX. mendearen hasie-

**Azkeneko zintzargilea
Norberto Etxebarrena
izan zen, eta 1917 urte
inguruan utzi zuen lana**

ran hiru sutegi zeuden, batez ere
goldeak eta txintxarriak egiten zi-
tuztenak. Joxe Gastesi historiala-
riaren arabera, azkeneko zintzar-
gilea Norberto Etxebarrena izan
zen (*Txanbor* deitzen zioten), eta
gutxi, gorabehera 1917an egingo
zituena bere azken zintzarriak.

Eskulangilea zen Norberto, eta
herriak izengoiti polita hartu du,
eskulangileena, hain zuzen.

Gauza asko bataiatu dituzte izen
honekin Alegian: Txintxarri Abes-
batza, Txintxarri Txiki, Txintxarri
Eguna ere ospatzen da, Txintxarri
elkartea, Txintxarri eskultura...
Egun horretan, abesbatzako hilda-
ko lagunei omenaldia egiten zaie,
besteak beste. Bestalde, orain dela
hamar bat urte, Txintxarriaren
Igoera hasi zen. Karmenetako fes-
ten hasieran, Txintxarriaren Igoe-
ra egiten dute, udaletxearen eta
beste etxe baten artean soka jarri-
ta. Eta festen bukaeran Txintxar-
riaren Erreketa egiten da, bolbo-
razko zarata eta guzti Karmen fes-
ten amaiera iragartzeko.

Hiribildu independentea

Alegiaren sorkuntza-data zehatza
ez da ezagutzen, baina oso zaharra



Alegian txintxarrigile asko zegoen garai batean, arrunta zen. Handik heldu da txintxarriak ezizena. NEREA URBIZU

XV. mendean txintxarriak egiteko lantegiak arruntak ziren herri honetan,
eta hau da herritarrek duten ezizena: herritar askoren lanbidearekin dago
lotuta izen hau. Ezizen polita izateaz gain, historiari betetako egokitu zaie.

Txintxarrien Alegia



Goian Bulebarra, errekeri so. Beheran, Ansorenak egindako txintxarrietako
bat, jubilatuen tabernan jarritako bere azken erakusketarako egindakoak. N. U.

**TXINTXARRI EGUNA
AZARO ALDERA
ANTOLATZEN DUTE**

Txintxarri Abesbatza Kultur elkar-
teak antolatuta Txintxarri eguna
ospatzen dute urtero. Abesbatza
urteetan abesten egon diren hilda-
ko abeslariak eta elkarteko bazki-
deei zuzendutako jaia izaten da.

Normalean meza garaian abes-
ten dute helduek eta ondoren kont-
zertua eskaintzen dute, bai Txin-
txarri Txiki eta bai Txintxarri
abesbatzak ere. Idoia Iraola eta
Garbiñe Orbegoza dira zuzenda-
riak. Bukatzeko, bazkaria izaten da
jarraian, Txintxarri.

izan zela uste da. Bere sorkuntza,
inolako zalantzarik gabe, inguruan
sakabanatuta bizi zen eta batasun-
ak ekar zitzakeen abantailak kon-
tuan izanik elkartu zen jendearen
pixkanakako taldeketa ondo-
rio izan zen, eta udalerrri-kontzien-
tzia hori sendotuz joan zen.

Aspaldidanik bere inguruetan
jendea bizi zen, baina ez dakigu
jende horrek gaur egun Alegia ko-
katuta dagoen lekura, ibaitik hur-
bil dagoen mendiarte estu honeta-
ra jaistean noiz erabaki zuen. Defen-
tsa eta laguntza komunerako
arrazoiekin batera, Amezketaren
Oria ibaiaren elkarguneak ere zeri-
kusirik izan zuela aipa daiteke.

Data zehatz bat ematekotan,
hau da argia: 1319. urtean Tolosa-
ren jurisdikzioan barne hartu zela
eta ondoren bertako bizilagun-
en eskariz anexioa izenpetu zela.
Bi mendeetan zehar hiri honetako
jurisdikzioan barne hartuta egon
ziren hogeita lau auzoetako bat
izan zen eta 1615. urteko apirilaren
3an hiribildu erabat independen-
tearen izaera lortu zuen.

Anekdotak kontuak gogora eka-
rriz, ez dute alegiar helduenek
ahaztuko 1953. urteko urrian izan-
dako uholde handia: Oria ibaiak
zeharkatzen du herria eta urte
hartan hainbeste hazita, herriari
galera handia ekarri zion. 2 metro
eta 30 zentimetroko altuerara iritsi
zen ura. Ez hain helduek, berriz,
1983. urteko abuztuan, hain zuzen,
gertatu ziren.

Bere armarrarian bost otso odo-
lezatatu agertzen dira urrezko atze-
aldean, gerrarako bandera eta sin-
boloekin. Armarrari hau «Enrique
IV.a erregeak eman zion Alegiako
herriari, bertako biztanleek Olme-
doko batailan erakutsitako adorea
sarituz».

Beraz, alegiarrei egokitu zaie
ezizena ona izanik, hala deitu ahal
diegu hemendik aurrera, herriko
zintzarrigileei esker.



Zintzargile asko izango zen garai
batean Alegian. HITZA

» GOITIZENAK

Alegialdeko goitzenak

- **Abaltzisketa.** Txalburuak.
- **Albiztur.** Kunplituak.
- **Alegia.** Txintxarriak.
- **Altzo.** Tipulak.
- **Amezketaren.** Euliak.
- **Baliarrain.** Zartagiak.
- **Bedaio.** Makilak.
- **Bidania.** Lapurrak.
- **Goiatz.** Lagunak.
- **Ikaztegieta.** Madriltxikiak.
- **Orendain.** Eltxoak.
- **Ugarte.** Amuarrainak.

Alegiari buruzko datuak

- **Biztanleak.** 1.617. 1996an 1.662.
- **Armarrarian.** 5 otso zauriturik urrezko hondoan. Udaletxean dago ikusgai.
- **Izaera.** Hiribildua. 1615eko apirilaren 3an hiribildu erabat independentearen izaera lortu zuen.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Anoeta.** 2008ko jaiak iragartzeko kartela egiteko lehiaketa abian da. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira apirilaren 18a baino lehen.
■ **Tolosa.** Gerra Zibilean errepre-sioa jasan zuten biktimen eta fam-ilien informazioa jasotzeko bule-goia Aranburu Jauregian, astelehe-netan 16:00etatik 20:00etara, asteartetan 09:30etik 13:00etara eta ostegunetan 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Aranzadi zientzia el-karteak antolatuta.
■ **Villabona.** Aizkardi elkartearen 40. Ibilaldia izango da etzi. Bi ibilbi-de Leitzaranean zehar: hamar ordu-koa, eta 5 ordu eta erdikoa. Izen-ematea, www.aizkardi.com, elkar-tean edo 649717182 zenbakian.

Erakusketak

■ **Alegia.** Patxi Tena urtero Kubara joaten da eta bertatik, artea ikas-ten duten ikasleen lanak ekartzen ditu. Ikusgai hilabete osoan zehar jubilatuen tabernan.
■ **Tolosa.** Tomas Hernandez Mendizabal artista donostiarraren erakusketa Aranburu Jauregian.
■ **Tolosa.** Euskarazko komikien erakusketa Kultur Etxean, 17:00etatik 20:00etara astegune-tan, eta 10:00etatik 13:00etara as-teburuan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Stardust* haurrentzako filma emango dute Leidor aretoan gaur eta etzi 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Paisaia zoragarriak topa daitezke nonahi; Idoia Lahidalgak horren adibidea erakutsi digu Aste Santuan Granadan ateratako argazkiarekin, Sierra Nevadaren ikuspegia.

Hotza eta beroa bertatik bertara



IDOIA LAHIDALGAUGARTE (VILLABONA) *

Idoia Lahidalga Andaluzia al-dera egin du bidaia pasa den Aste Santuan. Bidaian zehar atera dituen argazkietatik hauxe aukeratu du berak eta honakoa azaldu digu: «Grana-da hiriburuan gaude. Sierra Nevada elurtau aukaldean dagoelarik, nire ondoan pal-mera tropikal bat; kontrastez betetako paisaia, dudarik gabe. Ingaru honek eskain-zen duen guztia irudikatzen duela ikusi nuen argazki hau ateratzean».

A Agurrak



Urte askoan!
Juan Tolosa (Ugarte, Amezketa). Gaur 89 urte. Ondo pasa! Familiaren partetik.



Urte askoan!
Maddi Iturrioz Alkorta (Txarama). Gaur 5 urte. Muxu handi bat familiaren partetik.



Urte askoan!
Joxe (Lizartza). Gaur urteak. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

txokoa **h**



4 sarrera pare zozketatu ditugu!

BRUESA GBC
Ciudad de la Laguna Canarias
IGANDEA
MARTXOAK **30-19:00**
ILLUNBE

Hauek dira irabazleak:

- Alazne Oiarzabal (Ibarra)
- Karmele Pagola (Alegia)
- Juan Bautista Aranzabe (Tolosa)
- Olatz Olaetxea (Tolosa)